

AZPEITIA / Irakurtzearen xarma

NEREA URANGA

Liburu Truke Azoka egingo dute Kontzejupean, bosgarren urtez Azpeitiko Udal Liburutegian erabiltzaileak ugaritzen ari dira hilabetetik hilabetera; azken hiruhilekoan 7.712 jo izan dute bertara, aurreko hiruhilekoan baino 132 gehiago. Era berean, Udal Liburutegiko zerbitzuak ere gehitzen ari da. Horren erakusle, maiatzaren aurrenetik aldizkariak mailegu hartzeko aukera eskainiko dute.

Asko dira liburutegira gero eta herritar gehiago hurbiltzearen arrazoiak, Udal Liburutegiko arduradunen esanetan. "Multimediako artikuluek jende asko erakartzen dute, baita liburutegiak erosten dituen liburu berriek ere. Berrikuntzen bila-eta jende asko etortzen da, izan ere, diote.

Liburutegiko erabiltzaileen artean gero eta haur gehiago dago, baita jende heldua ere. "Haurren dagokionean, ikastetxeetatik gero eta bisitaldi gehiago antolatzen dituzte liburutegira, eta, hala izaten dute umeek liburutegiko berri. Jende helduak ere gero eta ohitura gehiago du etortzeko, izan ere, gero eta herritar gehiagok du denbora libre, azaldu dute.

Berrikuntza etengabea da Udal Liburutegikoa: hilero erosten dituzte liburuak eta multimediako produktuak. "Zer erosi erabakitzeko, gehien irakurtzen dituztenak zein diren begiratzen dugu aldizkarietan, eta horiek ekartzen saiatzen gara. Bestetik, euskal literaturari dagokionean, argitaratu berri dituztenak erosten saiatzen gara. Erabiltzaileek ere egiten dituzte eskariak; kasu horretan, ekartzea merezi duen edo ez aztertzen dute liburutegiko arduradunek: "Gaur egun liburutegi arteko mailegu zerbitzua ere martxan dugu, eta horren bidez ekarri badezakegu hala egiten dugu. Hilero, liburu arteko mailegu zerbitzuaren bidez beste liburutegietatik 60 bat liburu mailegatzeko dituzte Azpeitiko Udal Liburutegian. "Zerbitzu horren bidez, beste liburutegi batetik ekar dezakegu liburu, eta erabiltzaileak hilabetez eduki dezake etxean.

Liburu berriak salgai edo mailegatzeko jartzen dituztenean, haien berri emanez katalogoa argitaratzen dute, eta liburutegian bertan izaten da ikusgai. "Ordenagailu bidez ere ikusi daitezke liburu berriak, baina jendeak ohitura gutxi du tresna hori kontsultak egiteko baliatzeko.

Asmo eta aukera berriak

Mailegu zerbitzua eskaintzeaz gain, haurrentzako ipuin kontaketak ere antolatzen dituzte liburutegian. Gaur Miriam Mendoza zarauztarra izango da ipuin kontalari, 18:00etatik aurrera. Aurrera begira helduei zuzendutako saioak antolatzea ari dira aztertzen.

Maiatzaren aurrenetik, beste zerbitzu bat jarriko dute martxan: askotariko 83 aldizkariaren zenbakiak mailegatzeko aukera eskainiko dute. "Beste liburutegi batzuetan eskaintzen dute zerbitzua, eta gurera ekarri dugu. Ikus-entzunezkoekin bezala, aldizkarak ere astebetez mailega daitezke. "Jendeak liburutegira etorri eta irakurtzen egoteko denbora askorik ez du izaten askotan; era honetan aldizkaria etxean lasai irakurtzeko aukera eskainiko diogu.